

Ebazpena: R 170/2022

Espedientea: 40/2015

Vitoria-Gasteizen, 2022ko abenduaren 15ean.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordeak –Violeta Ruiz Almendral batzordeburuak eta Soffía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese batzordekideek osatuak– erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

Zerga Administrazioako Estatu Agentziak (aurrerantzean ZAEA) Arabako Foru Aldundiarekiko (aurrerantzean AFA) aurkeztu duen gatazkari buruzkoa. Erabakiaren helburua da zehaztea zeinek duen eskumena zerga-egoitza hurrenez hurren Galizian, Madrilen eta Katalunian duten hiru langileri OCSLk 2010. urtean egindako lan-atxikipenak ordainarazteko. Gatazka Arbitraje Batzorde honetan izapidetu da, 40/2015 espediente-zenbakiarekin.

I. AURREKARIAK

- 1.-** OCSL zerga-egoitza Araban duen erakundea da, industriarako tresna bereziak fabrikatzen eta saltzen dituena, eta merkaturatzea lurralde erkidean ere egiten duena.
- 2.-** Enpresak AFari ordaindu dizkio bere langile guztien lan pertsonalagatiko atxikipenak.

3.- ZAEAk ikuskatze-prozedura bati eman zion hasiera eta prozedura horri txosten batekin eman zion bukaera. Txostenaren arabera, ZAEArri dagozkio ohiko bizilekua Galiziako, Madrileko eta Kataluniako autonomia-erkidegoetan daukaten hiru langileren atxikipenak, haien bizilekuari dagokion lurralde-eremuan bakarrik ematen dituztelako zerbitzuak.

ZAEAk froga hauetan oinarritu du bere jarrera:

a.- 2013ko abenduaren 5eko Eginbidea, non enpresa atxikitzaileak aitortzen baitu langileek zerbitzuak lurralde erkidean soilik ematen dituztela,

b.- Lan-kontratuak eta, horiei erantsita, 2009ko urriaren 1eko jakinarazpen bat. Bertan adierazten denez, Bartzelonako probintziako lantokia (jatorrizko adskripzio-lantokia zen hori) itxi eta Arabako egoitzari atxiki arren, ez da lana egiteko eremu espaziala aldatu.

c.- Aipatutako langileak 2010ean Arabako egoitzan bi egun bakarrik (ostatu-gau bakarrarekin) egin zituztela jasota uzten duten fakturak.

3.- 2014ko urtarrilaren 7an, langile horiei zegozkien atxikipenak transferitzeko eskaera egin izana jakinarazi zion ZAEAk AFARI.

Erantzunik jaso ez zuenez, proposamena berretsi zuen 2015eko urtarrilaren 22an.

4.- 2015eko apirilaren 9an, AFAk uko egin zion proposamenari, enplegatuek beren zerbitzuak lurralde erkidean nahiz foru-lurraldean ematen zituztela iritzita (AFAREN ustez, egun batzuetan bezeroekin egoten dira, produktuak, instalazioak, prestakuntza teknikoa eta abar ezagutu dezaten); beraz, lan pertsonalagatiko

atxikipenak ordainarazteko eskumenaren lotune erabakigarria langilearen atxikipen-zentroa da, eta zentro hori Araban dago, hain zuzen ere.

5.- 2015eko ekainaren 8an, eskumena baliatzeari uzteko errekerimendua egin zion ZAEAk AFari, baina AFak eskumena zuela berretsi zuen hilabete bereko 30ean jakinarazitako idazki baten bidez.

6.- 2015eko uztailaren 28an, ZAEAk eskumen-gatazka aurkeztu zuen, eta prozedura arruntaren bidez izapidetu da gatazka hori.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Ekonomia Itunaren 66. artikulua adierazten du eginkizun hauek dituela Arbitraje Batzordeak:

a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkak erabakitzea.

Gatazka honetan Ekonomia Ituneko 7.Bat.a) artikulua interpretatu behar da, kasu zehatzari aplikatzeko, eta, horretan oinarrituta, ordainarazteko eskumena zehaztu.

2.- Aplikatu beharreko arauak

Ekonomia Itunaren 7.Bat.a) artikulua haxe adierazten du Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onesten duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legean biltzen den jatorrizko testuan (horixe aplikatu behar zaie, *ratione temporis*, 2011n eta 2012an egindako atxikipenei):

Bat. Lanaren etekinen ziozko atxikipenak eta konturako sarrerak, honako kasu hauetan, lurraldea dela-eta eskumena daukan foru-aldundiak eskatuko ditu, bere arautegiari eutsiz:

a) Euskadin egindako lan edo zerbitzuetatik datozen etekinak.

Lanak edota zerbitzuak lurralde erkidean eta Euskadiko lurraldean egiten direnean, arauak edo zerbitzuak Euskadin egiten direla uste izango da, aurkako frogarik ezean, baldin eta langilearen lantokia lurralde horretan badago.

3.- Lantokia

Gizarte- eta lan-arloko legedian ez dira gauza bera langilearen atxikipen-zentroa eta langileak zerbitzuak emateko eremu geografikoa.

Ohikoa da enpresek, beren jardueraren izaera kontuan hartuta, bulego edo sukurtsalik ez izatea jardunerako erabiltzen duten leku bakoitzean, nahiz eta eremu geografiko horretan zerbitzuak ematen dituzten langileak izan, baita

esklusibotasun-araubidean ere eta/edo beste espazio batzuetan ez lehiatzeko betebeharrarekin.

Kasu horietan desadostasuna egotea baimentzen da langileak zerbitzuak ematen dituen eremu geografikoaren eta atxikita dagoen lantokiaren kokapen geografikoaren artean, eta horrek garrantzia izango du eztabaida judizialak, Gizarte Segurantzako kotizazio-kontua eta abar ebazterakoan.

Hala, langile batek lurralde erkidean eman ditzake zerbitzuak, baina foru-lurraldeko lantoki bati atxikita egon daiteke, edo alderantziz.

Langileen Estatutuko 40. artikulua ondo etarako, langilearen lantokia izango litzateke bere zerbitzuak eskusibotasunez ematen dituen tokia, eta ez atxikipen-lantokia. Horrela, zerbitzuak emateko eremu geografikoa aldatu gabe atxikipen-zentroa aldatzeak ez lioke eskubiderik emango kontratua bidegabeko kaleratze baten berezko baldintzekin deuseztatzeko.

Hala ere, lan-prestazioengatik atxikipenak ordainarazteko eskumena zehazteko, legegileak *atxikipen-lantokia* aukeratu du; horrek eskatzen du enplegatzailleak langilea *atxikitze*ko borondatea izatea, eta nahitaez eramaten gaitu lan-kontratuan kontsignatu den eta Gizarte Segurantzako kotizazio-kontua zehaztuko duen zentrori.

4.- Zerbitzuak lurralde erkidean eta foru-lurraldean ematea

Ekonomia Itunak arau orokor bat eta beste arau osagarri bat ezartzen dituenean, horrek esan nahi du kasu gehienetan arau orokorra aplikagarritzat jotzen dela.

Beraz, ezin da egin kasu askotan hondar-arau osagarria artifizialki aplikatzea eragingo lukeen interpretazio bat.

Ohikoa da zerbitzuak emateak berekin ekartzea beste betebeharrak osagarri batzuk, prestakuntzarekin eta birziklatzearekin, kongresu eta bileretara joatearekin eta abarrekin lotuta daudenak.

Betebeharrak ez-nagusi horiek beste lurralde batean guztiz hondarrekoa den prestazioa ematea dakartenean, ez dira kontuan hartu behar, arau osagarriaren aplikazio behartua edo ez naturala izango litzatekeelako, irizpide nagusi edo orokorraren kaltetan.

Aztertzen ari garen kasuan, egiaztatuta dago lurralde erkidean destinatutako komertzialak Arabako zentralera jarduera osagarri edo lagungarriak egitera joan izan direla, eta, gainera, denbora hori benetan oso laburra izan dela urteko lanaldia kontuan hartuta; beraz, ezin da horretan babestu arau osagarriaren aplikazioa, arau nagusiaren kaltetan.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak hauxe

ERABAKITZEN DU

1.- Deklaratzea ZAEari dagokiola zerga-egoitza Galizian, Madrilan eta Katalunian duten hiru langileen 2010. urteko lan pertsonalagatik atxikipean ordainarazteko eskumena, zerbitzuak lurralde erkidean bakarrik eman dituztelako.

2.- Erabaki hau Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, Arabako Foru Aldundiari eta OCSLri jakinaraztea.